

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

**191/2019 Foru Agindua, ekainaren 14koa. Onestea maiatzaren 7ko 27/2019 Foru Dekretuan zehazten diren kirol jarduerak bete behar dituzten baldintzak, 2019ko ekitaldirako lehentasunezko mezenasgo jardueratzat jotzeko**

16/2004 Foru Arauak (uztailaren 12koa, irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzkoa) ezartzen du sektore pribatuak lehentasunezko mezenasgo jarduera edo programak finantzatzen parte hartzeko araudi esparrua.

Hala, bada, 16/2004 Foru Arau horren 29. artikulua lehenengo apartatuak ezarritakoa betez, Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 27ko 27/2019 Foru Dekretuak (ALHAOren 56. zenbakia, 2019ko maiatzaren 15koa) xedatu zuen zeintzuk izango ziren lehentasunezko mezenasgo jarduerak 2019rako.

Horien artean dira 3. artikuluan zehazten dituen kirol jarduerak, betiere, arau horrek ezarritako betebeharrak ez ezik, "Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Sailak ezarritako baldintzak" ere betetzen badituzte. Beraz, nahitaez ezarri behar dira 3. artikulua aipatzen dituen baldintzak 2019rako.

Baldintza hauek finkatzeko, bereizi egingo dira, alde batetik, kirol klubetako emakumezkoen talde edo sekzioen jarduerak eta, bestetik, gainerako kirol jarduerak, azken hauen artean kirol lehiaketak sartuta.

Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 16/2016 Foru Dekretuan Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikuluaekin loturik ezarritakoarekin bat etorritik, Saileko foru diputatuak dauka ebazpen hau hartzeko eskumena.

Xedapen hau Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuaren maiatzaren 29ko 166/2019 Foru Aginduaren bidez hasi zen lantzen, eta, ondoren, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuaren ekainaren 6ko 177/2019 Foru Aginduaren bidez, xedatu zen alde aurreko onespena ematea proiektuari. Halaber, alde aurreko kontsulta publikoa eta entzunaldia egin dira, jendaurrean jarri da, arau eraginaren txostena eta kontrol ekonomiko eta araugintzako txostena egin dira, eta legezko kontrola igaro zaio.

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, gobernuen eta administrazio publikoen araugintza ahala erabiltzean aplikatu behar diren zenbait printzipio eta teknika ezarri ditu, oinarritzat jotzen dituenak. Hori dela eta, maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuan eta administrazio prozedura erkidearen oinarritzko araudian jasotzen diren arauak onaren printzipioak betez, dekretu hau izapidetzean begiratu egin dira printzipio horiek; hain zuzen, beharrian, eraginkortasun, proportzionaltasun, segurtasun juridiko, gardentasun, eta efizientziaren printzipioak.

Xedapena onesteko premia Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 7ko 27/2019 Foru Dekretuak, ezarri zituen lehentasunezko mezenasgo jarduerak 2019rako, 3. artikuluan xedatutakoan justifikatzen da. Foru dekretu horren bidez, Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailari egozten zaio mezenasgo jarduerak zein diren erabakitzeko baldintzak zehazteko gaitasuna. Proposatutako arauak da hori bermatzeko tresnarik aproposena.

Proporzionaltasun printzipioaz den bezainbatean, proposatutako arauketak eskubideak esleitzen dizkie pertsona administratuei, bai eta betebeharrak ezarri ere. Ase nahi den premiari erantzuteko ezinbestekoak diren arauak jasotzen ditu, eskubideak gutxiago murrizten dituen edo hartzaileei betebeharrak gutxiago ezartzen dizkion beste neurririk ez dagoela egiaztatu ondoren.

Segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, proposatutako arauketa ez baita kontraesankorra Europar Batasuneko zuzenbidearekin konparatuz gero, ezta gainerako ordenamendu juridikoarekin alderatuta ere. Nahikoa justifikatua gelditzen da bai ordenamendu juridikoan sartzen dela bai hura ematen duen organoa horretarako gaitua dagoela.

Gardentasunaren printzipioari dagokionez: kontuan eduki behar da, maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuak bigarren xedapen gehigarriko a) Bigarren apartatuan xedatutakoa oinarri hartuz, alde aurreko kontsulta publikoko, entzunaldia emateko eta jendaurrean jartzeko izapideak ez direla beharrezkoak, ordeztan duen eta xede berbera duen ebazpenak (2018koak) pasatu baititu izapide horiek. Behin onetsi eta gero, ALHAOn argitaratuko da guztiek jakin dezaten, eta erraztasunak emango dira hura eta haren lanketako dokumentuak eskuratzeko, gardentasunaren inguruko araudiaren arabera.

Eraginkortasun printzipioaz den bezainbatean, proposatutako arauketa horrek, duen izaeragatik, ez dakarkie herritarrei ez administrazio karga osagarririk ez premiagabekorik, ez baliabide publikoen kontsumo handiagorik.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

#### XEDATZEN DUT

Bakarra. Erabakitzea maiatzaren 7ko 27/2019 Foru Dekretuaren 3. artikuluan zehazten diren kirol jarduerak bete behar dituzten baldintzak finkatzea 2019ko ekitaldian, lehentasunezko mezenasgo jardueratzat har daitezen, eta Agindu Foral honen eranskinean adierazten dena:

#### AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Garapena, interpretazioa eta betearazpena.

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak foru agindu hau garatu, interpretatu eta betearazteko beharrezkoak diren egintza eta xedapen oro eman ahalko du.

Bigarrena. Indarrean sartzea.

Foru Agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean eta 2019 urterako eragingo ditu ondorioak.

Gasteiz, 2019ko ekainaren 14a

*Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatua*  
**IGONE MARTÍNEZ DE LUNA UNANUE**

## ERANSKINA

Zer baldintza bete behar dituen Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 7ko 27/2019 Foru Dekretuaren 3. artikuluan zehazten diren kirol jarduerak, 2019ko ekitaldian lehentasunezko mezenasgo jardueratzat har daitezzen.

### 1. artikulua. Xedea

Erregulazio honen helburua da xedatzea zein baldintza bete behar duten Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 7ko 27/2019 Foru Dekretuaren 3. artikuluan zehazten diren kirol jarduerak, 2019ko ekitaldian lehentasunezko mezenasgo jardueratzat har daitezzen.

### 2. artikulua. Jarduera mota bakoitzerako baldintza espezifikokoak

1. Arabako Lurralde Historikoko kirol klubetako emakumezkoen talde edo atalen jarduerak.

Lehentasunezkotzat jo ahal izango dira Arabako Lurralde Historikoko kirol klubetako emakumezkoen talde edo atalen lehiaketa jarduerak, baldin eta lurralde, autonomia, estatu edo nazioarte eremuko lehiaketa ofizialetan parte hartzen badute.

2. Bestelako kirol jarduerak.

Aurreko atalean adierazitakoez gain, lehentasunezkotzat joko dira honako baldintza haue-takoren bat biltzen duten kirol jarduerak, kirol lehiaketak barne:

a) Emakumezkoena izatea.

Kirol jarduerak emakumezkoenak direla ulertuko da, emakumeek baino ezin dutenean parte hartu edo gehienbat emakumeek parte hartzen dutenean.

b) Emakumeen parte hartzea bultzatzea.

Kirol jarduerak emakumezkoen parte hartzea bultzatzen dutela ulertuko da, euren deialdian eta publizitatean dei berezia eta adierazgarria egiten bada emakumezkoek parte har dezaten.

Horrelakoetan, gainera, eskatuko da dena delako jarduerak genero estereotipoak apurtzera bultzatzea edo emakumeak ikustaraztea eta horiek gizartean aintzatetsiak izatea sustatzea. Baldintza hori betetzen dela ulertuko da jarduera horiek gizonaen parte hartzeakin lotuta egon izan diren eremuetan emakumeen parte hartzea bultzatzen badute.

Dena dela, aurreko atalak aipatzen dituen jarduerak Arabako Lurralde Historikoan egingo dira eta lurraldean eragin esanguratsua izango dute.

### 3. artikulua. Baldintza orokorrak

Pertsona fisiko edo juridikoek 2019ko ekitaldian euren jarduerak lehentasunezkotzat jotzeko interesa badute, 2019ko azaroaren 29a baino lehen egin beharko dute eskaera Euskara, Kultura eta Kirol Sailean.

Eskaerarekin batera lehentasunezkotzat jotzea nahi den jardueraren proiektua aurkeztuko da. Proiektuan dena delako kirol klub edo jardueraren diru sarreraren eta gastuen aurreikuspena jasoko da. Lehentasunezko jarduera kirol klub bateko emakumezkoen atalerako eskatzen denean, diru sarreraren eta gastuen aurreikuspenak bereizirik adieraziko ditu klubari dagokion aurreikuspenak eta kasuan kasuko emakumezkoen atalarenak direnak.

### 4. artikulua. Ebazpena

Eskatutako baldintzak betetzen badira, Euskara, Kultura eta Kirol diputatuak egingo du jarduera lehentasunezkotzat jotzeko adierazpena.

Ebatzi baino lehen, txostena eskatuko dio Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari, eta, horretarako, espedientea bidaliko dio.